


Ez izan beti zu



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
ITZULTZAILEA

PAULA ESTÉVEZ

Jendea eta jendearen bizimodua manipulatzeko, bihurritzeko, bortxatzeko, urardotzeko, hutsaltzeko eta nahasteko biderik eraginkorrenetako bat hitzak manipulatzeko, bihurritzea, bortxatzea, urardotzea, hutsaltzea eta nahastea da. Jabetzen naiz hutsal samarra dela artikulua Pernandoren halako egia batekin hastea, eta jabetzen naiz prentsa-zutabegileak ituan behar duela *originaltasun* deritzon kontzeptu optimista, baina badut jaidura bat esan gabe doazenak esan eta errepikatzeko; barkatuko didazue kontraesana.

Barkatuko didazue, edo agian hobe ez. Zeren hain justu “Nire kontraesanak ditut” esatea bihurtu baita azkenaldian norbere trakeskerien, astunkerien, markurkerien zuribide goxo. Segur aski hasieran jende bihotz onekoari edo hiperkoherenteari hiperexijentziaren lasta arintzeko balio izan zuten hiru hitz onbera haiek gaiztotu egin zaizkigu nabarmen, nornahik noiznahi nolnahi erabilki: bizitzan behin plastiko zahar bat edukiontzia horira bota ez zuelako kulpante sentitzen den ekologistak bai, baina baita energia berdearen etiketa xuxenaren pean ingurumena modu *moderno* batean hondatuz patrika be-

rotzen duenak ere (bi adibide ausazko jartzearen, ausazkorik bada).

Kontraesan onargarrien guardasol hipertrofiatuaren gerizpe linguistikoa gainezka dago oraintxe. Inkoherenteak, inkoherentzia larriz bere burua ez ezik ingurukoak ere kakazten baditu, hortxe du guardasola eskura, eta hipokritak, zer esanik ez, lasai ederrean jardun dezake guardasol bat esku banatan, A esan eta B egin, “nire kontraesanak ditut”-ka.

Denean bezala, esalditxoak egoki eta neurrian baliatzea dateke gakoa. Neurri hori zehazki zein den nik ez dakit eta jakin uste banu ere ez nuke esango, baina: bada erdibiderik norbere burua etengabe jipoitzearen eta norbere buruari den-dena barkatzearen artean; hizkuntzaren tranpatxo eder ezinbestekoaren eta hizkuntzaren zepo galgarrien artean.

Izan ere, modako esaldi nartzisista-sortzaileen artean, bada bat are arriskutsuagoa, mukurua: “Izan zaitez zu zeu”. Hori ere, ziur asko, asmo on-enez sortua, baina betiko berbokrata aprobetxategiek higatua eta hutsaldua: jaiotzatiko aiurri itxuraz biologikoen zurigarri individualista. Edo sinpleago esanda: bakoitzak, besteen kaltean pentsatu gabe, nahi duenean nahi duena egin

eta esateko autobaimena. Esalditxo sugorriaren ondorioak, jakina, begi-bistakoak dira: besteak beste, xuxentasun politikoaren kontrakar ustez heroikoan “Ni halakoa naiz” lelo gisa hartu eta une oro sudur puntan jartzen zaiona egiten duen jendea, jende listoa. Zeren nor hasiko da, ba, halako *libertate*-aldarri puru bati buru egiten, noiz-eta libertate pertsonalaren adordaldi honetan, non-eta libertate pertsonalaren gurtegi honetan. (Beste atal oso bat mereziko luke *libertate* hitz urkatu, tirokatu, frijitu, gezikatu gaixoari egiten ari zaizkion, gatzazkion txandrio doilorrak...).

“Garena aldatzeko egiten dugun hori gara”, esan omen zuen Eduardo Galeanok. Honezkerok, batzuk hasiak izango dira esaldi hori ere bortxatzen, bizimodu duina soil-soilik norbere esku dagoela aldarrikatzeko, hots, bizimodu duinik ez baduzu “zaren hori aldatzeko behar adina egin ez duzun seinale” dela kontentzitzeko. Baina gaitz erdi jatorrizko esanahiari nolabait eutsiko bagenio. Izan gaitzen gu geu, baina igual ez denbora guzti-guztian. Inork ez diezagula esan zer egin behar dugun, baina galde diezaigun elkarri, maiz samar, zer egin dezakegun. Ez izan idisko: ez izan beti zu. ●